

Katalunia-Euskal Herria azterketa konparatiboa

Bi nazio, bi bide

M A H A I - I N G U R U A

■ GORKA KNÖRR ■ ANTONIO RIVERA ■ TONI STRUBELL

IRITZIAK

- Josu Chueca
- Josep Maria Figueres

ELKARRIZKETAK

- Ramón Tremosa
- Jose Manuel Castells

Nondik datoz eta nora doaz euskal eta katalan nazionalismoak?

■ Nagore Irazustabarrena · Xabier Letona
Argazkiak: Dani Blanco

Kataluniari eta Euskal Herriari autogobernuaren bila paraleloan joatea egokitu zaie batzuetan. Baina sarritan, norabideen arteko aldea handia izan da. 36ko Gerraren zauria askoz mingarriagoa izan zen Katalunian. Trantsizioan eskubide historikoei heltzeak, berriz, euskaldunei egin zien mesede. Espainiako Estatuko BPGaren %20 izatea pisu handia izan da katalanentzat, EAEko %6aren parean. Bi nazionalismoek estilo oso ezberdinak dituztela ere esan ohi da: katalanak bigunak eta paktuzaleak omen dira eta euskaldunak erradikalagoak. Baina topikoak hausteko daude. Mahaiaren inguruan eseri eta iragana aztertu dugu oraina ulertzeko. Eta badirudi orain bizi dugun unea, Kataluniako estatutuaren erreforma prozesuarekin eta ETaren su-etenarekin, erebakigarria izan daitekeela bientzat.

1979an Katalunian nahiz Euskal Herrian onartutako autonomia estatutuen prozesuan eskubide historikoak aitortzeko aukera izan zen. Euskal Herrian, Nafarroan zein EAEn, bide hura hautatu zen. Zergatik Katalunian ez?

ANTONIO RIVERA. Abiapuntu historikoa oso ezberdina da batean eta bestean. Kataluniako Estatutuaren egungo testuak XIV. mendetik aurrerako jarraipen instituzionala aipatzen du. Haren azken adierazpena diktaduraren ostean berreskuraturako Generalitatea litzateke. Eta aurretik daude 1932ko Sauko Estatutua eta 1914an Kataluniako Mankomunitatea, testuak dienez. Ados, baina arazoa eskubide historikoen terminologia anbiguo da. Euskal Herriaren kasuan, esku-

bide historiko horiek elementu konkretuei egiten diete erreferentzia. Herrialde baten eskubideak dira, adierazpen juridiko formal zehatza dutenak, tradizio foraletik geratzen denari lotuta daudenak. Eta tradizio foraletik bi elementu geratzen dira nagusiki: kontzertu ekonomikoa eta zergen kudeaketarako gaitasuna. Katalunian horrelakorik ez dago. Horregatik Kataluniako testu berrian egiten den erreferentzia nahiko lausoa da, zehaztugabea, baina hala behar duelako. Ezin baitio erreferentziarik egin inolako elementu konkreturi, soilik eskubideei, zentzu generikoan hartuta. Azken bi mendeetan Nafarroa eta Baskongaden historiaren eta Kataluniakoaren artean alde esanguratsua dago. Finean, edozein lurraldek sortzen ditu berez eskubide historikoak, baina tradizio eta jarraipen juridikoa zein den zehaztu behar da. XVIII. men-



Ezkerretik eskuinera, Toni Strubell, Gorka Knörr eta Antonio Rivera.

dearen hasieran, Espainiako Suzesio Gerran, katalanek eta Aragoiko Erresuma zaharraren lurraldeek Karlos artxidukearen alde egin zuten, Euskal Herriak, aldiz, Felipe V.aren aldeko apustua egin zuen, eta horrek tradizio foralaren jarraipena ekarri zuen, 1839ko aldaketekin, 1876an abolizioa iritsi arte.

GORKA KNÖRR. Ez naiz inoiz izan planteamendu historizisten defendatzaile sutsua. Hautesontzietan adierazten den printzipio demokratikoaren aldekoa naiz. Baina ez dut testu historikoen garrantzia ukatu nahi. Hain zuzen Euskal Herritik egiten diren eskaera ugari garai batean testu batean ipini izana dute oinarri. Eta Antoniok esan duena egia da. Esaten da euskaldunok gerra asko galdu ditugula, baina garrantzitsuena gehiegi borrokatu gabe irabazi genuela

esango nuke, eta huraxe Suzesio Gerra izan zen hain zuzen. Bi aldeetako bati eskainitako "fideltasun" horrek eman zigun eskubide historiko jakin batzuei eusteko aukera. Batzuek diote eskubide historikoak gure ADN politikoa direla nolabait. 1979ra etorri, Katalunian ere izan zen eskubide historikoetara jo zuenik. Baina gogoan izan behar da 1978a arte ERC ez zela legala eta lehen hauteskundeetan ez zuela bere kabuz aurkezterik izan, eta horrek azal dezake errebindikazio horren ahultasuna. Oker ez banago, orduan Miquel Rocak esan zuen eskubide historikoak zaharkin hutsak zirela. Gerora, katalan asko ederki damutu da, ikusita zaharkin horiei esker hainbat planteamendu politikorako, hainbat eskumenetarako bidea ireki dela. Orduan eskubide historikoak mespretxuz baztertu zituzten berberak, orain estatutuaren

erreforma negoziatzean kontzertu ekonomikoaren antzeko erregimen finantzario baten bila joan dira.


A. RIVERA. Baina, Gorka, onartu behar duzu 1977an ez zela soilik euskal nazionalismoa erreferentzia historikoa erreklamatu zuena. Eskuin espainolistaren barruan eskaera foruzalea dago. Hortaz, Euskal Herriko eta Kataluniako indar politikoen konposizio historikoa oso ezberdina da, kontraesankorra nolabait.

TONI STRUBELL. Fenomeno bitxi bat aipatu nahi-ko nuke: Katalunian, egungo prozesu estatutarioan, eta 79koan berdin, indar ez nazionalistek dute beregain prozesuaren lidergoa. Arraroa da nazionalista teorikoek tartean 23 urtez agindu dutela kontuan hartuta. Garrantzitsua da 30eko hamarkadako prozesua eta 70ekoa bereiztea. 30eko hamarkadan Kataluniarren inizatiba funtsezkoa izan zen. Izan ere, prozesu estatutarioak, hainbat alorretan, prozesu konstituzional errepublikarrari aurre hartu zion. Trantsiziotik aurrera, berriz, Francesc Ferrer i Girones talde sozia-

listako senatari independenteak beti esaten zuen senatari sozialistak, eta UCDDkoak ere bai, Ortega irakurtzeko, haren lezioak ikasteko obsesio handiarekin ikusten zituela. Hots, ez zitzaien utzi behar nazionalismoei Estatuko lurralde eztabaidan protagonismo berezirik izaten. 70eko hamarkadan, alderdi ez-nazionalistek oso garbi zuten esparru hori mugatu egin behar zela. Garai horretako Kataluniako indar nagusiak guztiz egokiak izan ziren hori lortzeko. Hau guztia ederki azaltzen du Philip W. Silver-ek *Nacionalismos y Transición* lanean; bertan dio Katalunia dela 70eko hamarkadako prozesu estatutarioaren biktima nagusia. Batzuetan ez zaie soilik alderdiei erreparatu behar, pertsonak ere garrantzia handia dute. Katalunian bai prozesu konstituzionalean, bai estatutarioan, funtsezkoak izan ziren Miquel Roca edo Solé Tura. PSUC-ek berak ere ez zuen sentsibilitaterik erakutsi nazionalismoarekiko. Katalunian eskubide historikoei heldu ez bazitzaie nire ustez, batetik pertsonengatik izan zen, eta 1980 aurretik eman ziren koiuntura elektoralengatik bestetik. Erraza izan zen haientzat ezta-

M a h a i k i d e a k

■ GORKA KNÖRR



Kantari eta politikaria

Tarragonan jaio zen 1950. urtean, baina umetan gurasoek Gasteiza ekarri zuten. 1971n abestu zuen lehen aldiz jende aurrean, eta laster bere lehen diskoa argitaratu, *Araba kantari*. Apurka-apurka kantagintza politikarengatik ordezkatu eta EAko eurodiputatu, idazkari nagusi eta Eusko Legebiltzarreko presidenteorde izana da. Berriki, kantagintzari berriro heldu *–Arimaren zubia* diskoa aurkeztu berri du-, EA utzi eta ERC inguruan dabil egun. Grupo Mondragón-en 14 urtez aritu zen lanean eta EHUn Enpresa Zientziak ikasten ari da orain. Donostiako Espai Catalunya Topalekuko presidentea da.

■ ANTONIO RIVERA



Historialaria eta legebiltzarkidea

Miranda de Ebron jaio zen 1960an, baina beti bizi izan da Gasteizen. Historia Garaikidean doktorea, EHUKo Arabako Campuseko errektoreorde izan zen (1997-2002). Azken urte eta erdian politikan dabil, bere esanetan "probisional-ki". Eusko legebiltzarkide independentea da talde sozialistan. Lur entziklopediaren Historia Unibertsaleko bi liburuki zuzendu ditu eta dozena bat liburu argitaratu. Horien artean, *La ciudad levítica. Vitoria, 1886-1936* (1992) eta *Señas de identidad. Izquierda obrera y nación en el País Vasco, 1880-1923* (2004).

baida eskubide historikoeikiko sentsibilitate gutxi erakutsi zuten posizioetara bideratzea.

A. RIVERA. Toni, zuk diozu 70eko urteetan Katalunian dauden elementuak ez zirela batere nazionalak, 32arekin alderatuta. Baina konpara ditzagun ezkerreko indarrak. Ezkerreko bi alderdi nagusiek halako errefundazio nazional bat izan zuten 1932ko Sauko Estatutuaren ondoren. Errepublikan, PSUC berandu baieztatuko da alderdi komunista katalan gisa. Eta gogoan izan Trantsizio ondorengo lehen hauteskundetan komunistek Espainian lortu zituzten diputatuen erdiak PSUCenak zirela. Joan Raventósek sortutako PSC hark ere lehenago sozialismo katalanaren tradizio historikoan eman ez zen tradizio bat ekarri zuen. Izan ere, II. Errepublikako sozialismo katalana nahiko ahula zen eta ez zen batere katalanista. Ados nago Tonirekin, ikuspuntu nazionalista batetik, egun ERCK izan dezakeen ikuspuntutik, PSCren edo PSU-Cen nazionalismo maila ez dela inoiz nahikoa izango. Baina perspektiba historikotik, ERCK azken hiruz-

palau urtetan lortu duen garrantzia ez da orain arte eman. PSUC hor zegoen, PSC ere bai, komunismoak eta sozialismoak neurri batean izan zuten bere tradizioa Katalunian, baina inoiz ez izaera nazionalarekin.

T. STRUBELL. 70eko hamarkaren amaieran Kataluniako ezkerren inguruan egin zen karakterizazio nazional hura mitifikatua dago. Ni Kataluniako Asanbladaren ekitaldi batzuetan izan nintzen orduan eta, erakunde hori nolabait euskal ereduan oinarrituta egonda ere, beti iruditu zitzaidan PSUCek kontrolatua zegoela. 40 urteko estalinismoa jasan ondoren, Lituaniako Sajudis mugimendua ez zaizu aterako "*Llibertat, Amnistia i Estatut d'Autonomia*" bezalako bigunkeriekin. Baina Katalunia bai. Zergatik irten zen Katalunia hain bigun diktaduratik? Batetik, zerikusi handia izan zuen Gerra Zibila bertan bizi izan zen moduak. Bestetik, Katalunia ez zen gai izan mundu mitiko bat sortzeko eta bere kolektibo imaginarioa beste kolektibo estatalizatu, espainolizatu batengatik ordezkatu zen, eta hori niretzat galera da.

A. RIVERA. Aldera itzazu Euskal Herriko Gerra Zibila eta Kataluniakoa. Euskal Herrian askoz aukera handiagoa izan zen mundu mitiko hori sortzeko, euskaldunak zatituta baitzeuden. Katalanek, aldis, ia denek alde berean borrokatu zuten.

T. STRUBELL. Horrekin arrazoia ematen didazu. Euskal Herrian 36ko Gerran gertakizun larriak izanda ere, konparatiboki gerra laburra izan zen. Baina funtsezko aukera bat zabaldu zuen hemen: zuri-beltzeko irakurketa. Eta euskal gazteriaren zati handi bat kokapen oso erradikalekin identifika daiteke, irakurketa horri esker.

A. RIVERA. Hobe esanda, errealitatearen falsifikazioari esker.

T. STRUBELL. Niri hemen ez zait interesatzen zer den faltsua eta zer egiazkoa, eragina zerk izan zuen baizik. Gernika bonbardatu zuten, Picassok munduari bira eman dion koadro batean irudikatu zuen eta Euskal Herrian ez da bankurik irudi hori bezeroei oparitu ez dienik. Lleida berdin-berdin bonbardatu zuten eta inor ez da gogoratzen. Gudari hitza, hainbat mailatan, oso garrantzitsua da erreferente gisa, eta

■ TONI STRUBELL



Kazetaria

Oxforden jaio zen 1952an. Ama erbesteratutako katalana zuen eta aita ingelesa, RAFeko pilotua. Aitona, berriz, Josep Trueta zirujau ezaguna. Oxforden bertan Filosofia eta Letrak ikasi eta 1975ean, Franco hiltzear zela, joan zen Kataluniara. 80ko hamarkadan etorri zen Euskal Herrira eta Erreterian bizi da egun. Deustuko Unibertsitatean irakasle izana (1992-2002), *El Punt* egunkarian dihardu gaur, kazetari. Comissió de la Dignitat-en koordinatzailea (2002), hamar bat liburu ditu argitaratuak, horien artean *El cansament del catalanisme* eta *Un català entre bascos*.

Francoren tropak
1939ko urtarrilaren
26an sartu ziren
Bartzelonan.
Mahaikideen
esanetan, 36ko
Gerra askoz
gogorragoa izan zen
Katalunian, Euskal
Herrian baino.
Diferentzia horrek
ondorioak izan ditu
bien bilakaeran.



ederki funtzionatzen du 60 eta 70eko euskal gazte askorekin. Aldiz, Ebroko Fronteak katalan gazteen belaualdi osoak sarraskira eraman zituen eta hura oroitzeko 2004 urtera arte ez da monumentu triste bat ere jarri. Zergatik? Gerra Zibilak oso oroimen txarra utzi zuelako eta horregatik ez du zuri-beltzeko irudi mitifikagarrikerik eragiten, Euskal Herrian bezala. Agirre erbestera joan zen bere jendeari laguntzeko milioi mordo batekin. Companys, aldiz, dirurik gabe, seme atzeratuarekin eta bere herrikideak laguntzeko inolako aukerarik gabe joan zen.

A. RIVERA. Baina nik uste dut Euskal Herriaren kasuan esan duzun guztia 60ko hamarkadako bukaeran eta 70ekoaren hasieran (68ko krisia, Burgoseko epaiketa...) ematen den birkonposizioa dela. 36ko Gerraren garaileak Euskal Herrian daude. Karlismoaren trama zibila Nafarroan, Errioxan eta Araban erreklutatu zen bereziki; eta Gipuzkoan ere bai, hemen gutxi onartu nahi badu ere. Ez gaitezen engaina: aurkitzen ari diren gorpuak karlistek fusilatutako anarkistenak dira. Horixe da egia, baina euskal nazionalismoak gaitasun ikaragarria du historia berregiteko. Hots, frankismoaren aurkako oposizioa Albazeten, esaterako, banan banako batuketa besterik ez da,

borondate partikularren batuketa. Euskal Herrian ez, Euskal Herrian historia berregin eta esaten da frankismoaren aurkako oposizioa herri moduan artikulatzen dela, eta ez indibidualtasunen bilketa moduan. Eta horrela, Espainiako tokirik faltsuena izanda ere, erralitatea berreraikitzea lortuko duen bakarra da, 36ko Gerra herri baten gaineko inposaketa moduan azalduz. Manipulazioan ez, baina eragin praktikoetan arazoia ematen dizut, Toni. 70eko hamarkadan perzeptzioa da Espainiako Gerra Zibila euskaldunen aurkako gerra dela, euskaldunek peoi bat bera ere ez dutenean mugituko 60ko hamarkada amaiera arte.

G. KNÖRR. Batetik, arrazoi du Antoniok hemen ere Frankismoaren oposizioa indibidualtasunen batuketa besterik ez zela dionean. Ni Donostian manifestazioetara joaten nintzenean, Mundaizko aldapatik behera, Luis Diaz Aizpiolarekin, Eugenio Etxebeste Arizkurenekin... horrela zen. Baina bestetik, Katalunian bazen nolabaiteko derrotismoa eta oposizioa ere bananduta zegoen. Nire osaba Enric 16 urterekin erbestera joan zen eta Frantziako kontzentrazio esparruak jasan behar izan zituen. 1968 inguruan, Bartzelonan genbiltzanean, ia ezkutuan eramaten ninduen Parlament-a ikustera. Ez dakit faltsua ala erreala den,

“Azañak zioen moduan,
‘Arazoa Katalunia da’.

Arazoa beti izan da
Katalunia. Espainiako
BPGaren %20a da egun eta
hala izan da lehen ere. Beraz,
arau matematiko edo
ekonometriko hutsa da: ezin
da gauza bera egin
euskaldunekin eta
katalanekin”

A. RIVERA

baina egia da hemen frankismoaren oposizioari beste gorputz bat eman zitzaioela.

79ko Estatutuei berriro helduz, horiek negoziatzeko orduan, Kataluniak agian pentsatu zuen nahiko izango zela elementu batzuk jasota. Baina denborak erakutsi du ez direla nahikoak. Kataluniako tripartitoak iaz adituen batzorde bati finantzazioari buruzko azterketa bat eskatu zion eta emaitza harrigarria izan zen: azken urteetan defizitaren batezbestekoa %7tik gorakoa izan da eta tarteka %10 ere gainditu izan du. Horrek aukerak eta ahalmenak asko murriztu ditu, eta hori guztia 79ko estatutuen negoziaketatik dator.

Eskubide historikoei heldu izanaren ondorio nagusia beraz, EAEn Kontzertu Ekonomikoa edo Konbenioa berrezartzea izan zen. Gainera, xedapen gehigarrien bidez, hainbat ate zabalik utzi zen. Zein ondorio izan zuen honek guztiak Euskal Herrian nahiz Katalunian?

T. STRUBELL. Pertsonak garrantzia handia dute batzuetan, lehen esan dudana bezala. Frankismoaren ondoren, Kataluniarentzako estatutua negoziatzeko

garaietan, Ramon Trias Fargas ekonomia munduko pertsona garrantzitsua zen eta ordurako CiUren barruan zegoen. Oso modu garbian egin zuen Euskal Herriko eredu fiskalaren antzeko zerbaiten alde. Kontzertu ekonomiko moduko bat funtsezkoa zen, bere iritziak, Kataluniako Autonomia benetako botere aukera izan zedin. Baina ideia honek ez zuen bere alderdiaren barruan arrakastarik izan. Pujol-ek eta Roca-k adierazi zioten erradikalegia zela, horrelakorik ez zela aurrera aterako. Finean, Madrili begira, ukiezina ukitzea zela. Une horretan Kataluniako nazionalismo moderatua kikildu egin zen nabarmen. Nik uste dut horren sinplea izan zela.

A. RIVERA. Nire ustez ez da hain sinplea. Azañak zioen moduan, "arazoa Katalunia da". Arazoa beti izan da Katalunia. Espainiako BPGaren %20 da gaur egun eta hala izan da lehen ere. Beraz, arau matematiko edo ekonometriko hutsa da: ezin da gauza bera egin euskaldunekin eta katalanekin. Berezitasun edo pribilegio bat onar diezaikezu euskalduneri, Espainiako ekonomiaren %6,24ari, baina %20arekin egitea oso zaila da. Ez da posible bereizketa hori egitea, irizpide generiko bat ezartzea litzateke.

G. KNÖRR. Baina gaur egun zein dago generalizazio horien aurka? Nik ulertu dudana da, Katalunia horren handia denez, ezin dela ezer egin. Baina nik diot posible dela, handiek eta txikiek formula bat adosten badugu. Egia baldin bada estatu ezberdin bat eraiki nahi dela, mekanismoak adostu egin behar dira. Eta Espainiako Gobernuak ez badu hori nahi, barkatu, baina nik geltoki horretara joan nahi dut, Carod Rovirak iaz esan zuen moduan. Une honetan, Galizian, hemen eta Katalunian gobernu pluralak ekarri dituzten indar korrelazioak eman dira eta Madrilen, ustez behintzat, alderdi sozialista batek du agintea. Orain ez bada, noiz konponduko da afera? Zuk diozu ezin direla irizpideak generalizatu, baina posible da Katalunia apurka itotzea, Alemanian esaterako, eskandalagarriak eta onartezinak izango liratekeen defizit fiskalekin, ezta? Ez naiz orokortu ezin daitekeen ezer planteatzen ari. Arazoa da, alde bateko eta besteko jendeak, Arias Salgado eta enparauk bezala, estatua desager daitekeela dioela, eta estatua dela solidaritatea bermatzen duen bakarra. Bada ez da horrela, eta

batzuetan guztiz alderantziz da, Katalunian gertatu bezala. Estatuak argaldu egin behar du.

A. RIVERA. Horretan denak ados gaude, ministerio mordo bat soberan daude. Baina nire kezka bakarra hauxe da: posible al da solidaritatea berri bat sortzea Espainia barruan, ez espainolismoagatik, baizik eta, Europan bezala, zonalde pobreenen eta aberatsenen arteko oreka mantentzeko? Nik zalantzak ditut.

1977-1979 tarte horretan Kataluniak ez zion heldu Euskal Herriak hautatu zuen bagoiari. Eta horrela bakoitzak bere garapena izan du autogobernuan. Kataluniako nazionalismo moderatua damutu al da horretaz?

T. STRUBELL. Katalunian nazionalismo moderatua ez du tradizio bakarra. CiU bera ere ez da gauza bera boterean edo oposizioan. Esaterako, Mas-Zapatero akordioa baino lehen, CiUren rola ia-ia independentistatza jo genezake, euren diskurtsoa muturrera eramane zuten. Modu horretan tripartitua ahuldu eta ERCri moderatu itxura eman nahi zioten. Baina 1979 inguruan, beldurrak, Madrildik zetozen deiek, eta BPGaren %20aren presio horrek, ekarri zuten autogobernuaren ideia bigarren maila batean uztea. Koherentzia nazionala, normalean, gabezia izan da CiUn, batez ere boterean izan denean.

G. KNÖRR. CiU Kataluniako Gobernuan egon den 23 urtetan partxeak jarri besterik ez du egin. Urte horietan guztietan ERCK estatutu berri baten beharra adierazi du behin eta berriro eta ezaguna egin zen CiUren erantzuna: "Orain ez da tokatzen". Agintean egon den nazionalismoak ez ditu inoiz autogobernurako pausoak, eta bereziki finantziario eredu berri bat, indar nahikoarekin eskatu.

A. RIVERA. Epe laburrean, eskumenen eskaera orokorretatik beste fase batera pasa gaitezke. Norbaitek hatza altxatuko du gastu publikoen efikazia eskatuz. Gai horrek ordaina eskatuko die, ez soilik Kataluniako Gobernuari, beste guztiei baizik, Espainiako Gobernutik hasita. Horixe da egun alemanek duten eztabaida, euren estatu federalaren ereduaren efikazia zalantzan jartzen ari dira. Länderren gestioaren

eraginkortasunik ezarengatik, estatu zentralak eskumenak berreskuratzeko aukera aztertzen ari da.

T. STRUBELL. Agian esentzialista irudituko zaizue esatera noana. Kataluniak entusiasmo handiz bizi izan zuen Trantsizioa. Bat-batean, XXI. mendean sartuta, atzera begiratu, erreposoa egin eta hainbatek ikusi du Trantsizioak ez duela asebetete. Aznarrek gehiengo absolutuz agindu zuen garaian, Kataluniako sektore garrantzitsuentzat oso deigarria izan zen gobernu hark nola erabili zuen erregearen figura. Erregeak esan zuen katalan hizkuntza ez zela inoiz jazartua izan, gaztelera ez zutela inoiz inposatu. Hura Katalunian benetako zaplastekoa izan zen. Eta ustez moderatua zen jende asko zerbait oker zegoela pentsatzen hasi zen. Auzitegi Konstituzionalak eta beste-lako auzitegi espainiar garrantzitsu batzuk teoriar diote, katalan hizkuntza bat eta bakarra dela. Baina praktikan, Valentziako Generalitatek ez du betetzen eta gainera horren kontra egiten du gogoz. Aragoian, aldiz, koofiziala ere ez da. Gaztelera hitzun baten eta katalan hitzun baten eskubideak berdinak ez diren sententzia dago, eta sentipen hori askoz indartsuagoa da gaur, 80ko hamarkada hasieran baino. Pujol erretiratu zenean, bere jarraitzaileak bildu eta esan zien: "Nik hormaraino eramane zaituztet, hemendik aurrera zuek saiatu beharko duzue horma gainditzen". Hormaren sententzia hori oso presente dago. Batzuek esango dute erradikalitasuna hazi egin dela. Nire irurketa hauxe da: kultura eta hizkuntza batek bizi-rauteko behar dituen baldintzak ez dira ematen ez Katalunian, ez gainerako zonalde katalanofonoetan, PP mehatxu larri bezala ikusten da eta PSOEek gaiak konpontzeko behar lukeen esfortzua egiten ez duela pentsatzen du askok.

A. RIVERA. Zuk esan bezala, oso esentzialista iruditu zait esan duzuna. Eta kosta egiten zait sentipen hori katalanen gehiengoak duela sinistea. Baina kezka iruditu zait Aragoiren inguruan esan duzuna. Aragoiko presidenteari sentibiltate gabezia egotzi behar diogu, bera katalan hitzuna denean? Eta berdin Valentziarekin. Zer egin behar dugu? Inbadituko ditugu? Aragoian istorio hau saltzeak istorioarekin bakarrik geratzea suposatzen du. Eta Valentzian PPK gehiengo absolutua du. Eta orain Kataluniako Estatutu berriak dio katalana ezagutzea obligazioa dela. Sentitzen dut

baina hori Espainiako Konstituzioak gaztelerarekin egindako akatsa izan zen, eta orain akats hura errepikatu dute katalanarekin. Horrek ahultasuna besterik ez du adierazten. Eta katalanak saguaren eta katuaren jokora eramango ditu.

G. KNÖRR. Baina Tonik dioena ez da soilik Kataluniako sektore jakin batzuetan gertatzen. Hizkuntzaren inguruko eztabaida eta sentipen horiek PSCko ezagunen artean ikusi ditut nik askotan. Eta finantziazio eredura itzuliz, berau birplanteatzea guztiz funtsezkoa zen. Lehen Antoniok esan du Alemanian hainbat eskumen birzentralizatzea jarri dutela mahai gainean. Baina egun katalanismo modernoan ez da hainbeste hitz egiten eskumenez, beharrez baizik. Eta horren ondorioz, finantziatioaz. Adibidez, absurdua da Kataluniako inmigrazio datuak hain altuak izanda, esku-mena Madrilén izatea.

Euskal nazionalismoa historikoki erreibindikatioagoa dela esan ohi da, eta katalana aldiz moderatuagoa, paktu zaleagoa, pragmatikoagoa. Ados al zaudete irudi honekin? Gaur ere bi estilo horiek mantentzen al dira? Eta hala bada, zein ondorio izan du horrek?

A. RIVERA. Joan den mendeko 20ko hamarkadan, Primo de Riveraren diktaduran, Francesc Macià mugitzen hasi zen katalan nazionalistak, komunistak, anarkistak... bildu eta Miguel Primo de Rivera Ejerzitoko kapitain generala Kataluniatik botatzeko. Bitartean Euskal Herriak ekaitzari bizkarra eman zion eta kultur arloetan murgildu zen. Beraz, garaiaren arabera da estilo horiek bereiztea. Euskal nazionalismo erradikalaren irudi hori 70eko hamarkadako irudia da. Horren aurretik ez daukagu ezer, Eli Gallastegi eta bere mutilak Jagi-Jagirekin eta ezer gutxi gehiago. Jatorriz nazionalismo katalana askoz aurreratuagoa dago geurea baino. Horrek esan nahi du, I. Mundu Gerra ondorengo krisian, bere eskuina baduela (Lliga) eta ezkerre ere garatu duela. Horrelakorik ez dago hemen; 1930ean ANV dago, baina liberala eta laikoa izanik ere, ezin genezake esan ezkerrekoa zenik. ETA iritsi arte ez dugu horrelakorik, orduan sortu zen krisia, banaketa, konbultsioa euskal tradizio nazionalistaren barruan. Baina bai, Kataluniako tradi-



"Miquel Rocak esan zuen eskubide historikoak zaharkin hutsak zirela. Gerora, katalan asko ederki damutu da, ikusita zaharkin horiei esker hainbat planteamendu politikorako bidea ireki dela. Orduan eskubide historikoak mespretxuz baztertu zituztenak, orain estatutuaren erreforma negoziatzean kontzertu ekonomikoaren antzeko erregimen baten bila joan dira". G. KNÖRR

zioa paktista da. Eta horrek ziurrenik, berriro ere, BPGaren %20arekin du zerikusia. Francesc Cambó Espainiako koroako ministro izan zen bitan Primo de Rivera iritsi baino lehen. Aldiz, ministro izatera iritsi zen lehen euskal nazionalista Irujo izan zen. Gainera, gerra baten erdian lortu zuen hori eta ordutik ez dugu besterik izan. Nazionalismo katalana askoz irekiagoa da, liberalagoa. Jatorriz euskal nazionalismoa antiliberala da. Kataluniako nazionalismoak beti izan du Espainian eragiteko, Espainia kudeatu nahi izateko joera. Gogora dezagun Cambóren kanpaina 1817an: "Per Catalunya il'Espanya gran". Hori ez dugu hemen inoiz izan eta ez dugu izango.

“**B**urgoseko prozesuaren ondoren agian euskaldunak jarrera gogorragoa agertu du, baina ordura arte euskalduna Espainiako monarkiaren idazkaria izan da”

A. RIVERA

G. KNÖRR. Baina nazionalismo katalana ez zen bakarra, plurala zen. Urrutira joan gabe, Gaudí bera independentista zen.

A. RIVERA. Baina tradizio nazionalista katalana ez da Espainiaren kontrako tradizioa. Egia da euskal nazionalismoaren tradizio sozio-kristaua ere (Irujo, Agirre, Ajuriagerra...) ez dela hainbeste Espainiaren kontrakoa. Baina jatorrizko tradizio sabinianoa bai. Azkenean, bi tradizioak ezin dira konparatu; nazionalismo katalanaren Espainiarekiko harremana oso atzetik dator; aldiz, euskal nazionalismoa Trantsizioetik hona hasiko da Espainiarekin harremanetan.

T. STRUBELL. Garrantzitsua da gai honetan topiko-ei buruz hitz egitea. Cambridgeko Elliot-ek edo Valentziako García Carcel-ek gaia aztertu dute. García Carcel-ek dio historian zehar goitik behera aldatu dela katalanez izan den irudia. XVI mendean katalanekin harremanik izan zutenen artean, inori ez zitzaion bururatuko katalanak paktistatzat jotzea. Katalana kanpokoentzat pertsona zakarra zen, bere ohorearen laguna eta besteekiko kontu handirik ez zuena. Baina gero XVII eta VXIII. mendeak oso garrantzitsuak izango dira topikoak ezartzeari dago-kionez. Interesgarria da katalanaren irudi paktista eta zuhurra orduan nola agertzen den. García Carcelek deskribatzen du nola Felipe IV.enaren Kantzilertzak garai hartako dramaturgoei ordaintzen zien, euren lanetan katalan zuhurraren topikoa sar zezaten. Arrazoi politiko hutsagatik egin zuen hori, Felipe IV.a izan baitzen katalanen eskubide eta pribilegioak mugatzen hasi zena. Garai hartako ekimen militar ugariak ordaindu ahal izateko katalanen dirua behar

zuen. Beraz, ados Antoniorekin %20 hori aipatzen duenean. Baina ez dut gustuko katalanismoa paktista eta biguna izan dela entzutea. Ez dugu ahaztu behar azken 150 urtetan Kataluniak Estatu Katalana deklaratu duela hirutan. Kontuan izan behar da, beraz, nazionalismo katalanean ere erradikaltasuna badela. Horrela azaltzen da, esaterako, joan den otsailaren 18an Bartzelonako Gran Vía jendez gainezka egotea, manifestazio nazionalistak egiteko inolako joerarik ez duen hiri batean. Estatuak eta Espainiako iritzi publikoaren gehiengoak uste zuten katalanek egoera, beti bezala, normaltasunez eta lasaitasunez hartuko zutela. Baina hainbat katalanen kontzientzietan errebolta txiki bat ematen ari da. Eta horrek poztu egiten nau.

G. KNÖRR. Hori egia izanda ere, katalana orokorrean ez da hain muturrekoa, euskaldunekin alderatuta. Oro har, Kataluniako gizartea termino demokratikoetan askoz ere aurreratuagoa dago. Eta arrazoiaren artean Euskal Herrian eman den indareriaren pisu izugarria dago. Asoziazionismoan ere hemen ez dagoen tradizioa eta garapena dago han.

A. RIVERA. Bai, han dena oso politikoa da.

G. KNÖRR. Finean, katalana ez da hain tremendista eta jarreraren kontziliazioa bilatzeko joera du.

A. RIVERA. Ados nago. Gutxienez azken urteetan nazionalismo katalana kontziliatzaileagoa agertu da. Baina XIX. mendearen erdialdera kazetari katalan integrista batek, Manye i Flaqué-k, "El oasis vasco" izeneko liburua idatzi zuen Euskal Herrian egon ondoren. "Euskal oasis" zen hemen topatu zuena gerra zibil baten ondoren eta beste bat hasi baino lehen. Bitartean, Katalunian, Espartero Montjuicetik bonbardatzen ari zen. Beraz, herriek ez dute esentziarik, herriek historia eta koiuntura dute. Eta guk estereotipo bat finkatu dugu 30 urte besterik ez dituen koiuntura batean oinarrituta. Burgoseko prozesuaren ondoren agian euskaldunak jarrera gogorragoa agertu du, baina ordura arte euskalduna Espainiako monarkiaren idazkaria izan da.

Joan den mendearen erdialdean euskal nazionalismoaren sektore batek bide armatua aukeratu zuen. Katalunian,

aldiz, ez da horrelakorik izan, edo ez behintzat Euskal Herriaren neurri berean. Zein eragin izan du horrek, hainbat esparrutan eta, bereziki, autogobernuan?

G. KNÖRR. Katalunian Terra Lliure existitu zela esan behar da, baina egia da babes sozial ahula izan zuela.

T. STRUBELL. Zalantzarik gabe borroka armatuak eragin handia izan zuen urte batzuetan EAJrengan, hots, "Zumosoleko lehengusuak" bere ondorioak izan zituen. Baina akatsa da pentsatzea Katalunian borroka armaturik ez dela izan. Gerraostean gerrillariak izan genituen, batez ere anarkismoaren ingurukoak. Terra Lliureren kasuan, porrota izan zen, neurri batean behintzat, berandu hasi zelako. Meliton Manzanasenak eta Carrero Blancorenak "ospea" edo "prestigioa" eman zion ETari. Katalunian ez zen horrelako momenturik izan. Alderantziz, une jakin batzuetan Kataluniak indarkeriarekiko mespretxua berreskuratu zuen, Gerra Zibil gogorraren ondorioz garatutako mespretxu hura. Bultó kasua indarkeriaren aurkako txerto ezin hobea izan zen katalanentzat, norbaiti bonba bat bularrean paratu eta leherraraztea guztiz onartezina izan zelako. ETaren lehen fasean, ikurrinak ipintzen zituzten, gero paketeak eta hortik aurrera bere garapena izan zuen. Fase hori ere izan zen Front Nacional de Catalunya-ren eskutik. Baina militanteen erorketa garrantzitsuak izan zituen eta seguru aski horrek ekarri zuen haien amaiera. Eta eskerrak! ETak sekulako eragina izan du hemen, baina baita Katalunian ere. Ez bakarrik hautesleei dagokionez; gogoratu HBk Europako Parlamenturako hauteskundeetan 50.000 boto lortu zituela Katalunian eta gero Hiperkorreko atentatuarekin gainbehera etorri zela. Baina horrez gain, Estatuaren errepresiorako argumentu nagusia ETA izan da. Errepresio horrek, GALen garaiez gain, Aznarren bigarren legeintzaldian iritsi zuen goreneko puntua. Nazionalismoa = indarkeria ekuazioa egitea lortu zuen, nazionalismo katalana ere zaku berean sartuz.

A. RIVERA. Tonik esan duena oso garrantzitsua da. Kataluniak 36ko Gerraz duen oroimena indarkeriaz betea dago. Kataluniarekin alderatuta, Euskal Herrian

“XVII eta XVIII. mendeak
Xoso garrantzitsuak izango
dira topikoak ezartzeari dagokionez.
Interesgarria da katalanen irudi
paktista eta zuhurra orduan nola
agertzen den. Garcia Carcelek
deskribatzen du nola Felipe
IV.enaren Kantzilertzak garai
hartako dramaturgoei ordaintzen
zient, euren lanetan katalan
zuhurraren topikoa sar zezaten”

T. STRUBELL

oso indarkeria gutxi izan zen. Katalunian Gerraren hiru urtetan muturrera eramane zen indarkeria, etsaiaren garbiketa izan zen. Bestetik, bada faktore bat ahaztu egiten duguna: zorionez, izaera nazionala baino estimulu gehiago badira. 40ko, 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan, Katalunian hura baino askoz estimulu indartsuagoak zeuden. Makien tradizioa 60ko hamarkada arte iritsi zen. Katalunian, indarkeriaren errekurtsoa erabiltzeko joera ez dator nazionalistotik, benetako tradizio katalan libertariotik baino. Askoz beranduago etorri zen Terra Lliure eta bere presentzia anekdotikoa izan zen. Ez dezagun pentsa sublimazio nazionalistaren zuzeneko ondorioa indarkeria denik. Hori da Euskal Herrian gertatu dena, ados, baina salbuespen bat baino ez da. Urrutira joan gabe, Espainian bertan, gainerako adierazpen nazionalisten artean ez da gertatu. Euskal Herrian edo Irlandan gertatu izanak ez du esan nahi indarkeria nazionalismoaren bidelagun logikoa denik.

Bestalde, "Zumosoleko lehengusua"ren ideia baino erabakigarriagoa izan da beste ideia hau Madrilgo agintarien ikuspuntutik: Euskal Herriko agintari logikoa eta Espainiarekiko interlokutore logikoa EAJ da eta soilik hark eramane dezake pistoleroa bide onetik.

Horrek indar gehiago izan du, beste argumentu sinple honek baino: eman diezaiegun hau edo beste euskaldunei, bestela petardoarekin etorriko zaizkiguetan. Alderantziz izan da, hain zuzen: desbirtuatu egin du indar korrelazioa eta eskaera nazionalista muturrekoenen adierazpena, nik ez dudana konpartitzen, baina bere formulazio demokratikoan, beste edozein ideiak bezala, errespetua merezi duena.

G. KNÖRR. Beroaldi uneetan, bateren batek Katalunian esan izan du ea ETAREN beharra ote dagoen euskaldunei eman dieten hori katalanek ere lor dezaten. Baina orokorrean ez dut uste jendeak horrela pentsatzen duenik. Nik ere ez dut pentsatzen armak Euskal Herriarentzako mesedegarriak izan direnik ezertan, are gehiago, ETA izan da aitzakia nagusia autogobernuzko aurrerapausoei mugak ipintzeko ez soilik Euskal Herrian, baita Katalunian ere. Garbi ikusten da hori Frantziako defentsa ministro Michèle Alliot-Marie-k esaten duenean ETA dagoen bitartean Iparraldeak ez duela departamendu propiorik izango.

Azken 30-40 urtean eta egun subiranotasun kontzeptuak esanahi berdina izan al du, ikuspuntu nazionalistatik, hemen eta Katalunian?

T. STRUBELL. Subiranotasunaren definizioa unibertsala dela esango nuke. Hemen ere definizio eta jarraera ezberdinak koiunturaren arabekoak dira. 1989an Kataluniako Legebiltzarrak autodeterminazio eskubidea ez baztertzearen alde bozkatu zuenean, CiUko zuzendaritza oso haserre agertu zen. Eta uste dut EAJk ere horrelako garaiak izan dituela, non euren ekitaldietan autodeterminazioaren antzeko hitzik ere ez zuten esaten. Nazionalismo moderatuak bandera moduan erabiltzen du, hau da, komeni zaionean. Beraz, zentzu honetan Katalunia eta Euskal Herria kualitatiboki pareka ditzakegu; kuantitatiboki ziur aski ez. Nork esan behar zion Esloveniari 1985ean estatu independente bat izango zela? Eta gaur egun inor ez da bertan kalera ateratzen kontrakoa eskatzen. Eta ikusiko dugu Montenegro zer gertatzen den. PSCren sorrera kartan bertan autodeterminazio eskubidea oso presente dago. Beraz, ez zait iruditzen halako zentzugabekeria denik eta, presarik gabe, herrialde askotan mahaigaineratuko den gaia da. Ez

dut uste historiaren zentzuaren aurka joatea izango denik. Autodeterminazioaren aldarrikapena ahulagoa izan da Katalunian hemen baino, baina horrek ez du esan nahi historikoki legitimazio gutxiago duenik.

A. RIVERA. Nire ustez metahizkuntza da. Koiuntura historiko bakoitzean termino batek garrantzia hartzen du eta esanahia ere aldatzen du. Orain autodeterminazioa erabiltzen da eta 70eko hamarkadan ez zuen ezer esan nahi. Subiranotasunak nazionalismo independentistari balio dio erdi bide moduan. Diskurtso nahiko berria da, giro jakin batzuetan oraindik eskaera zehaztu gabe dago eta horietara egokitzeko terminoa da. Euskal Herriko kasuan badira alderdi batzuk argi eta garbi independentistak direnak: Batasuna, Aralar, EA... Baina EAJ zer da? Subiranista, eta nola hori metahizkuntza den, bada, horren barruan denetik sartzen da. CiU ere ziur aski subiranista izango da, eta PSC ere bai, haiek hala nahi badute. Horrek politikan ez du ezertarako balio, politikan formulazio konstituziogileek balio dute joko arauak eta *statu quo* aldatzeko.

G. KNÖRR. Ados nago, beti ere denei aplikatzen bazaie. Estatuaren erdiraldera zoaz eta han egunero hitz egiten dute subiranotasunaz. Baina gero, gure subiranotasuna da arazoa, eta ez haiena. Gainera, betiko argumentua erabiltzen da: gurea hiritartasun printzipioa da, beste hauek euren entelekia moduko horretan jarraitzen duten bitartean. Baina Espainiako bezalako estatuak horrelako arazoak dituzte, hain zuzen ez dituztelako euren hiritarrak ezagutzen. Gehiagotan entzun nahiko nuke Ramon Jauregik 1995ean esan zuena: XXI. mendean Euskadi euskal herritarrek erabakitzen dutena izango da. Quebecera egindako bisita batetik etorrita esan zuen hori.

Metahizkuntzaz hitz egin duzu, Antonio. Baina metahizkuntza hori oso presente dago Espainiako Konstituzioan, ahalmen normatiboarekin gainera. Hala dio 2. artikulua: "Subiranotasuna Espainiako herrian datza".

A. RIVERA. Kontuz. Metahizkuntza hizkuntza juridiko zehatzaren parean ipintzen ari gara. Nik zalantzan jarri nahi dudana da berez subiranotasuna

batzuek eurentzat hartu eta besterik gabe aurrera eramaten duten gauza dela. Politikak berak mugatzen duen jokoa da. Zure aldarrikapenak gehiengo politikoa duenean, orduan gailenduko zara etsaia-rekin duzun borroka zibilean.

T. STRUBELL. Zergatik permititu zuen azkenean gobernu britainiarrak Downing Street-eko akordioa? Zer aldatu zen 1975eko Ingalaterratik 1993 edo 1994kora? Ingalaterrako soziologo eta politologoek ematen duten azalpena iritzi publiko britainiarraren eboluzioarena da. Britainia Handiko iritzi publikoa Irlanda euren herriaren zati ukaezina dela pentsatetik beste aukera bat posible zela pentsatzera iritsi zen. Hau ikusita zera galdetzen diot nire buruari: Espainiako Estatuko komunikabideek noiz planteatuko dute demokratizatu egin behar dutela?

Bai Euskal Herrian eta bai Katalunian une berezi eta, dirudienez, erabakigarriak bizitzen ari gara. Orain arteko bidea ikusita, zein norabide har dezakete Euskal Herriko nahiz Kataluniako prozesuek etorkizunean?

A. RIVERA. Ziur aski indarkeriaren amaiera erabakigarria izango da. Eta ez dut uste gaur egun estatuei interesatzen zaienik euren herrialdeen izkinetan horrelako arazoak mantentzea. Arazoa da gehiengo nahikoa behar dela, eta nire zalantzak ditut euskal nazionalismoak gehiengo hori ba ote duen.

G. KNÖRR. Etorkizun hurbilean, Katalunian, Estatut berriaren prozesu guztia joan den bezala joan ondoren, eta berriki ERC Gobernutik bota dutela ikusita, horrek guztiak ekaineko erreferendumean ezezko bozka indartuko duela uste dut. Eta udazkeneko hauteskunde aurreratuetan ERCK gora egin dezake. Ikusteko dago zein gobernu formula eratuko den. Nik azken hiruko gobernu berreskuratuko nuke.

A. RIVERA. Estatut-aren prozesua ederki hasi zen metodologikoki. Baina badu berez gustatzen ez zaidan ezaugarri bat: aurreko testuarekin alderatuta, artikulatua hirukoiztu egin da. Gehiegizkoa iruditzen zait. Zenbat toki uzten dio horrek garapen legislatiboari? Baina logikoa iruditzen zait Maraga-



"Ez dut gustuko katalanismoa paktista eta biguna dela entzutea. Ez dugu ahaztu behar azken 150 urtetan Kataluniak Estatu Katalana deklaratu duela hirutan". T. STRUBELL

llek balazta zapaldu eta ERC Gobernutik bota izana. Azkenean bere Gobernuako kide bat prozesu konstituziogile baten aurka agertu da. Hala ere, hiruko gobernu berregitearen aldekoa naiz ni ere.

T. STRUBELL. Datozen urteotan garrantzitsua izango da mesfidantzaren aurka egitea. Eta ordezkarien sentsibilitateak neurri handian gora egin beharko luke. Espainiako Estatuko magistratuen elkarte garrantzitsueneko bozeramailea Bartzelona joaten bada ezin du esan epaitegietan katalana erabiltzea, zerra mekaniko bat eskura izanda esku-zerra erabiltzea bezala dela. Eta ezin dugu ahaztu Gerra Zibilaren zorra oraindik kitatu gabe dagoela. Beraz, baikortasunez, nik etorkizunean sentsibilitatea handitzearen aldeko apustua egiten dut. Orain arte iritzi publikoak defenditu dituen PPren jarrera batzuk datozen urteotan defendi ezinak izango direla espero dut, arrazoi demokratiko hutsengatik. Elementu positiboak ere hor dira, ETaren amaierak mesfidantza gainditzen lagunduko du. Desdramatizatzea ondo etorriko zaigu. ■

Garibai kaletik San Jaume plazara begira Euskaditik Kataluniara begirunez

"II. Errepublika gauzatu zenetik, 15 hilabete nahikoak izan zituzten Kataluniako Parlamentua, Gobernua eta egitura autonomo osoa abian jartzeko. Euskal Herriak bide hori eragotzita zuen"



Josu Chueca*

Garibai kalean zegoen biltoki errepublikanoan atondu zuten 1930eko abuztuaren 17an Donostiako Hitzarmena, II. Errepublikaren aldarri eta aurrerapide zuzena izanen zena. Bertan bildutakoek, erregimena aldatzearekin batera bigarren puntu bat adostu zuten: Kataluniak Autonomi Estatutua izanen zuenarena alegia. Horren ondorioz, Errepublikaren egunsentian bertan, 1931ko apirilaren 14an Francesc Maciàk Bartzelonako San Jaume Plazako balkoian "Interpretant el sentiment i els anhels del poble que ens acaba de donar el seu sufragi, proclamo la República Catalana com Estat integrant de la Federació Iberica..." aldarrikatu zuen. Adierazpen horrek Madrilén eragin zuen aztoramena amatatzeko hiru ministro –Nicolau D'Olwer, Marcelino Domingo eta Fernando de los Ríos– hara igorri zituen gobernu errepublikanoak Kataluniaren auzia berbideratu nahian. Hori dela medio, apirilaren 17an Katalunia osorako Generalitat delakoa sortzeaz gain, herri horrek laster Autonomi Estatutua izanen zuela adostu zuten Companysek Maciàk eta lehen aipaturiko ministrari espaniarrek. Horren ondorioz, oso agudo

gauzatu zuten Nuriako Estatutua, eta plebiszitatu ondoren, 1932ko udan onetsi zuten Espainiako Gorteek. Gorenako agintari errepublikanoek, Niceto Alcalá Zamora buru zutela, Estatutu horren sinadura Donostian, bi urte lehenago aipaturiko hitzarmena gogoratu nahian, egin zuten festa giroan eta hotsanditasunez. II. Errepublika gauzatu zenetik, 15 hilabete nahikoak izan zituzten Kataluniako Parlamentua, Gobernua eta egitura autonomo osoa abian jartzeko.

Euskal Herriak nahiz eta Kataluniak hasitako bideari ekin, egun horietan, Estatuturantz joan zitekeen bidea eragotzita zuen. 1931.eko apirilean hasitako ekimenak, Alkateena deitu izan zenak, ez zuen antzeko oniritzirik izan, ezta urrundik ere. Bartzelonan ministroak negoziatzera bidali zituzten eta Gernikan burutu behar zuten lehen udal ordezkarien bilerara goardia zibilak igorri zituen Espainiako Gobernuak asanblada galarazteko. Bestetik, Euskal Herrian, proiektu bat izan beharrean, bost proiektu gutxienez idatzi, eztabaidatu, errefusatu eta onartu behar izan zituzten, azkenean, 1936ko urrian Autonomia gauzatzeko. Oso nabarmen gelditu zen Errepublikako agintariak autonomiaren inguruko asmo berdinei oso desberdin erantzun zietela 1931-1936 bitartean. Izan ere 1936ko hauteskunderen kariatara Ezkerrak Autonomiaren aldeko jarrera adierazi zuen eta horren ondorioz Estatutuaren aldeko azken pausoak askoz errezago eman ziren. Donostiako Hitzarmenean Indalecio Prieto sozialista bizkaitarrak Euskal Autonomiari buruz azaldutako mesfidantza, 1936a arte ez zuten gainditu bera bezalako agintari ezkertiar askok eta hor dago gakoia ulertzeko Kataluniaren eta Euskadiren arteko desberdintasunak. Kataluniako



Francesc Macià-k Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen Palau de la Generalitat-eko balkoitik 1931ko apirilaren 14an.

Ezkerrak, Esquerra Republicanatik Bloc Obrer i Camperoleraino, katalanzale jokatu zuen legez, Euskal Herriko Ezkerra kontraesanen kutxa zen. Katalunian, nazionalismoaren nagusigo politikoa ERC delakoak edukitzeaz gain, ezker guztiak, nabardurak nabardura, beren herriko eskubide nazionalen alde aritu ziren. Muturrekoenak, anarkistek esate baterako, Autonomi Estatutuari buruzko axolagabetasuna alboratuta, eta I. Errepublikaren garaiko federalismoari helduz, berea egin zuten autonomia. 1936ko irailaz geroztik, Generalitat delakoa, hurrengo urteko maiatzeko gertaera latzak suertatu arte, onetsi eta bertan parte hartu zuten. Bloc Obrer i Camperol, geroxeago POUM bilakatuko zenak, *La Batalla* aldizkaritik, Estatuko herri guztien bereizketa defendatzen zuen horrela sortutako Errepublika Sozialista Iberiarren batasuna etorkizunean gauzatu ahal izateko. Era berean, Estatutua Katalunia burgesarena zela uste izan arren, baiezkotza eskatzen zuen "aurka bozkatzea burgesia espainolazaleak bultzatzen zuen zentralismoaren garaipena laguntzea" izanen zelakoan.


Euskal Herrian berriz, Kataluniako Lligaren antzekoa zen Eusko Alderdi Jeltzalea, autonomiaren aldeko proiektuaren bultzatzaile nagusia izateak uxatu zituen, berez, erreibindikazio horrekiko arras hotzak ziren ezkerak. Elizarekiko harremanei zegozkien emendakinak, Errepublikaren laiktotasunarekin talka egiten zuelako eta EAJk lehen hilabeteetan izan zituen bidelagunek (karlistak, monarkiko eskuindarrak etab.) sakondu zuten Autonomiaren erreibindikazioarekiko sektore ezkertiarrek zuten mesfidantza. 1934.az geroztik, bai nazionalistek eta baita ezkertiarrek ere, jasandako errepresioa ezabatuko zuten. Izan ere, Asturiasekin batera, Katalunia eta Euskadi izan ziren "Biurteko Beltzean", errepresio latzena pairatu zuten eskualdeak. EAJ-k ERCrekin elkartasuna adierazteko, Parlamentutik alde egitea, pixka bat beranduago, PSOEkoekin bat eginik "Ardo Estatutua"ren borrokan aritzea eta 1936.ko hauteskundetan Autonomi Estatututua erreibindikapen amankomun izateak egiaztatu zuen, alderdi nazionalista zentro aldera joaten ari zen bitartean, euskal ezkerren alderdi nagusia, PSOE alegia, Kataluniako ezkertiarren jarrera autonomizalea hartzen ari zela. Hemengo sozialisten aldaketa, nafarrena barne, oso adierazgarria izan zen 1936ko ekainean, Autonomi Estatutua bultzatzeko.

"36ko Gerrak 'Gerrazko Autonomia' deitu izan zutena ekarri zuen. Kataluniaren eta Euskadiren arteko desberdintasun aunitz izan ziren, baina Autonomiek antza handiak zituzten. Batetik, Estatutueta zegoen autonomia maila baino askoz zabalagoa izan zelako indarrean jarritakoa. Bestetik, -nazionalistek komunistak ziruditen bitartean, komunistak abertzaletu ziren- sektore politiko guztiek izan zuten bilakaerak lagundu zuen herrialde horiek autonomo gisa aritzea"

Geroxeago lehertuko zen gerrak, bai Katalunian baita Euskadin ere, "Gerrazko Autonomia" deitu izan zutena ekarri zuen. Orduan gertatutakoari dagokionez, bistan da Kataluniaren eta Euskadiren artean desberdintasun aunitz izan zirela, baina Autonomiek antza handiak zituzten. Alde batetik, Estatutueta zegoen autonomia maila baino askoz zabalagoa izan zelako indarrean jarritakoa. Bestetik, Cruz Salido kazetari sozialistak idatzi zuen legez -nazionalistek komunistak ziruditen bitartean, horiek abertzaletu ziren- sektore politiko guztiek izan zuten bilakaerak lagundu zuen herrialde horiek autonomo gisa aritzea. Status horien amaiera, jakina, berdintsua izan zen, nahiz eta epe desberdinetan izan. Euskal Herriko 1937.ko udan, Kataluniakoa, 1938-1939ko neguan, frankistak ezarri eta deuseztatu baitzirenean. Diktadura hori amaitu zenean, lau hamarkada beranduago, Katalunia eta Euskadi nazionalitateen erreibindikazioen aldeko lehian aitzindari izan ziren. Errepublikako urteetan legez, antzekotasun eta desberdintasunekin, baina orduan bezala ere, elkarri begira, elkat miretsiz.

Komunikazioa Kataluniaren eraikuntza nazionallean

“Hurbileko prentsaren maila zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta lotuago dago interes nazionaleri: herriagandik hurbil dagoen prentsa libreagoa izan ohi da kontzepzio nazionalistan”



Josep Maria Figueres*

Historikoki, hedabideek XIX. eta XX. mendean mezu nazionalista sozializatu dute, eta artikulatu dituzten herri-mugimenduek dimentsio kritikoa izan dute ideologiaren funtsezko ardatz. Trantsiziotik agertutako gizarte modernoan, hogeita hamarreko hamarkadako industria katalanistaren deuseztapena santzionatu dute. Industria hori gehiengoa zen mundu intelektua-

lean, eta ordezkaritza zabala eta indartsua zuen umorezko prentsan, aisiakoan, etab. Izan ere, oso kopuru handietara iristen zen, bai izenburuetan, bai tiradetan, intentsitate handiz barneratzen baitzen gizarte guztian. Eguneroko hedabide handiek, hala nola *Ultima Hora*, *La Veu de Catalunya*, *La Publicitat* edo *La Humanitat* egunkariak, ezin izan dute askatasunez jarraitu; aldizkari handiek, hala nola *D'Ací*, *D'Allà*, *Mirador*, etab., ahanzturara igaro behar izan dute, beste askok bezalatsu.

Askatasuna merkatu suntsitu batekin eta profesional nahiz enpresari arras bakan batzuekin sortzeko izan da; frankismotik sortutako hedabideek, berriz, kontinuitatearen errutinarekin eta inertzia-rekin kontatzen zuten. Konstatazio simple hori izugarria izan da katalanezko prentsarentzat, eta are gehiago eduki kritikoko katalanezko prentsarentzat. Zertan da gaur egun? Nola ari da eboluzionatzen komunikazioa?

Kataluniako gizarte modernoan, fenomeno apasionagarriak ari dira gertatzen masentzako komunikazio sozialaren arloan. Izan ere, apenas dagoen halakorik Europako beste leku batzuetan, edo gure mugetatik oso urruti agertu dira, baina hemen



indar handiz ari dira sustraitzen. Aipa ditzagun batzuk:

✓ Jatorri herritar, hiritar edo pribatuko hedabide ugari, etekin ekonomikoa ateratzeko asmorik gabeak. Zentzu zibikoko aldizkariak eta buletinak. Aski da begiratu bat ematea .cat domeinu berrian inskribatuei.

✓ Publikazio lokalen, eskualde mailakoen eta eskualdez gairako sare zabala, auzo bakoitza eta herri bakoitza behetik gorako hedabide batez hornitzen duena. Eguneroko prentsa izatera iristen da, eta orain –esate baterako, *El Punt* publikazioa edo Més Sabadell, Més Sant Cugat katea– hurbileko prentsa deritzona izateko bokazioa duten katalanezko egunkariak izatera.

✓ Komunikabide publikoen erreferentziazko eredu dira, kualitatiboki oso garrantzitsuak bihurtu baitira, sozialki oso baliotsuak eta hizkuntzaren normalizaziorako funtsezko lanabesak: CCRTko telebista eta irratiko kanal publikoak, hobetzeko ekimen etengabeekin: sareko azken programazioa eta bideoak (aurrez pagatuta).

✓ Paperezko hedabide tradizionalak kontsolidatu egin dira. *La Vanguardia* egunotan ari da 125. urteurrena ospatzen, eta *El Periódicok* kontsolidatu egin du katalanezko eta gaztelaniazko edizio bikoitza, batez besteko %50eko kopuru globalekin.

✓ Berealdiko bizitasuna dute irratia eta telebistako estazio lokalek, hainbat formaren bidez eratuak: munizipalak, komertzialak, kateetan eratuak, etab. Informatiboki nahiz komertzialki eragin handia duten alderdi komunikatiboak dira.

✓ Era guztietako inizatibak etengabeak dira prentsa espezializatuan: musikala, akademikoa, kulturala, etab. Horri esker, Bartzelona da oraindik argitarteen hiriburua, nahiz eta banku-kapitala, publizitate-industria, etab. estatuko hiriburura migratu diren, orain harira ez datozen arrazoiengatik.

Egia esan, katalanezko eguneroko prentsak ia hamar egunkari ditu, jadanik aspaldiko *Avui* (1976) eta *El Punt* (1979) kazetaz gain, Bartzelonatik haragoko beste hiri batzuetako egunkariak gehitu baitzaizkie, *El Periódicoren* katalanezko edizioarekin batera. Hala: *Diari d'Andorra*, *Balears*, *Segre* (Lleida), *Diari de Girona*, *Regió 7*ren edizio anitzekin bat egin duena, eta *El 9 Nou* Kataluniaren erdialdean.

"Historikoki, hedabideek XIX. eta XX. mendean mezu nazionalista sozializatu dute, eta artikulatu dituzten herri-mugimenduek dimentsio kritikoa izan dute ideologiaren funtsezko ardatz. Trantsiziotik agertutako gizarte modernoan, hogeita hamarreko hamarkadako industria katalanistaren deuseztapena santzionatu dute. Industria hori gehiengoa zen mundu intelektualean. Izan ere, oso kopuru handietara iristen zen, bai izenburuetan, bai tiradetan, intentsitate handiz barneratzen baitzen gizarte guztian"

Interneten, beste hamar bat izenburu lokalizatuko genituzke: *Tribuna Catalana*, *La malla*, *E-noticies*, *Diari de Barcelona*, *Vilaweb*, etab. Baina fenomeno berri bat gorpuztu da trantsizioaz geroztik, Madrilgo informazio-egunkarien edizio erregionalak iritsi baitira: *El País*, *El Mundo*... 1984az geroztik etengabe hazi dira, ingurune intelektual eta funtzionarioetan abonatu, bai eta jatorriz estatuko beste zona batzuetakoak diren geruza zabaletan ere. Gaztelaniaz editatzen diren egunkari katalanak gairatu ez badituzte ere, tiradan katalanezko egunkarietatik hurbil dabilta.

Prentsa komertziala milioi erdi aletan gelditu da duela hamarkada batzuetatik hona. Doako prentsa, berriz, kopuru horietara iristeko borrokan dabil. Analiak, jakina, konplexuak dira. Pertsona berak al dira dauden egunkarien irakurle guztiak? Banaketarik ba al dago hedabideen irakurleen artean? Azterlanik gabe, zail izango da oinarri horiek ezartzea. Informazio-lau egunkari doakoak (*20 Minutos*, *Metro*, *ADN*

“Publizitatearekin edo finantzen munduarekin loturak dituen prentsaren maila zenbat eta handiagoa, orduan eta mundu identitariotik urrunago”

eta Què?), kiroletakoak aparte utzita, haziz doaz tiradan eta influentzian, audientzia gaztea, urbanoa eta dinamikoa banatzen dute beren artean. Horrek argi erakusten du prezioa dela irakurtzeko oztupoa eta ez interesatzen ez den edukia. Asko ñabartu beharko litzateke: doako prentsaren edukia hurbilago dago irakurleagandik, diseinu eskematikoa aproposagoa da garraio-sisteman irakurtzeko... baina errealitatea garbia da: doako prentsa kontsolidatu egin da; egunkari konbentzionalek, berriz, negozio-eremua letra inprimatuaz harago hedatu dute.

Fenomeno berriak agertu dira, hala nola liburudenden desagertzea, liburu kosmopoliten salmenta, kolonizazio zinematografikoa, etab., eta identitate-rako negatiboak diren elementu horiei partzialki kontra egin dakieke dokumental kreatiboen gorakadarekin, sareko kanal editorialetan liburuen salmenta ugaltzearekin edo Abacus kooperatibaren hedatzearekin, zeina kultura zabaltzeko benetako tribuna bat baita eta hamar bat lokal handi eta ehunka mila kooperatibista baititu.

Eskematikoa izateagatik kasik baldarra gertatzen den posizioen planteamendu honetan, zirriborratu dugun azpialde panoramiko honetan, nola geratzen da eduki identitarioa? Ñabarduretan sartu gabe, dugun hedadura mugatua ia agortu baitugu, esan genezake zenbait axioma betetzen direla:

✓ Hurbileko prentsaren maila zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta lotuago dago interes nazionalai: herriagandik hurbil dagoen prentsa libreagoa izan ohi da kontzepzio nazionalistan, hala informatikaren munduan nola mundu lokalean eta eskualde mailakoan. Hedabide horietan, edukien tipologiak, zabal-kundea eskuratzeko askatasunak, zirkulazioaren las-tertasunak, oso eragin handiko tipologia komunikatiboa itxuratzen du. Hain dute influentziatzeko gaitasun handia, non publizitate komertziala dagoeneko iritsi baita haiengana, horrela aitortuz eta berretsiz heldutasunera iritsi direla.

✓ Etengabe agertzen dira ekimen berriak, kontsolidatuz doazenak eta kopuruz minoritarioak baina bestalde nabariak diren kolektiboengana iristen direnak (egunkari baten irakurleak ez al dira, bada, gutxiengo bat?). Horrela, Senderi, Materials d'Història de Catalunya bezalako informatikako aldizkariak edo Contrastant bezalako eduki kritikoko web orriak paperezko hedabide konbentzionalen osagarrigisa taxutzen ari dira. Filosofoenganaino ere iristen da kontua. Hala, Josep M. Terricabrased bere web orria ireki eta gizarteari buruz hausnartzen duten artikulua eta testuak sartzen ditu, eta hori oso eskertzekoa da kontsumo soiletik harago.

✓ Publizitatearekin edo finantzen munduarekin loturak dituen prentsaren maila zenbat eta handiagoa, orduan eta mundu identitariotik urrunago. Hori hala ageri da planteamendu gordinetarako, esate baterako gai tabuetarako, hala nola nazionalista presoak torturatzea edo katalanez argitaratutako liburuekin interes gutxi izatea, noiz eta best-sellerren itzulpenek lehentasunezko maila gozatzen baitute feedback eztabaidagarri batean: nazioarteko liburuen zabalkundea egiten da liburuen gaineko gehigarrietan, eta, publizitatea egitean, saldu egiten dira; katalanezko nobedade askoren kasuan, aldiz, izenburua aipatu ere ez da egiten.

Mekanismo zital bera baliatzen da katalanezko zinema jende gutxik ikusiko duela esatean. Ez da aipatzen kopien, aretoen eta emanaldien kopurua, betiere oso urria edo hutsala. Baldin eta zinemaren % 5era iristen bada, liburuen kasuan erdi eta erdi gertatzen da, gutxi gorabehera, nahiz eta generoetan bariazioak badiren. Soluzioa konplexua da, zeren hedabide handiek uzkur egiten baitiote bai hizkuntza katalanari, bai loturazko edukiari. Hedabide handiak sektore katalan kulturalizatuengandik horren urrun egote horrek orobat esplikatzen du katalanezko hedabideek horrenbesteko inpaktua izatea. Oso kontsolidatuak badaude ere, oso desiratuak dituzte talde handiek, erosi nahi baitituzte aise inplantatzeko edo dumping errazekin lehiakideak ixteko. Prentsak gizartearen pare eboluzionatzen du, transformatuz, eta eduki identitarioak formula eta medio berrietara moldatuz doaz, gizarte osoaren dinamismoarekin bat.

** Historialaria eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea*

“Horrela jarraituz gero, 2015ean Katalunia lurralde pobrea izango da Espainian”



Ramón Tremosa*

Duela 25 urte, EAEk eta Nafarroak kontzertu ekonomikoaren sistema lortu zuten. Kataluniak, berriz, ez zuen lortu alde bietara finkatutako finantzaketa eredurik. Zein izan zen horretarako gakoa?

Gakoa Euskadiren eta Kataluniaren trantsizioaren mapa politikoan datza: Katalunian, lehen alderdia PSC-PSOE zen 1977an, bigarrena PSUC, hirugarrena UCD eta laugarrena CiU –botoen %16arekin baino ez–, eta legalizatu berria zen ERC, lehenengo hauteskundeetan parte hartzerik izan ez zuena (PCEk, aldiz, ahal izan zuen). Nolako aldea Euskadirekin! Lehen alderdia EAJ, bigarrena HB, hirugarrena PSE-PSOE eta laugarrena EE. Gainera, CiUn Miquel Roca ez zen kontzertu ekonomikoaren aldekoa, Ramón Trias Fargasek bakarrik defendatu zuen. Orain, emaitza bera gertatu da: Kataluniako parlamentuan CiUk eta PSCk gehiengo absolutua duten arren, PSC Presidentzia eta kontseilaritza nagusien buru izateak balio izan zuen Katalunian adostasuna lortzeko 2005eko iraileko Estatutuan, baina, azkenean, Diputatuen Kongresuan PSC, PSOEn lausotu da.

Urte hauetan, Kataluniako finantzaketa ereduak defizit garrantzitsua eragin du, Generalitateak adituei balantza fiskalak ikertzeko eskatutako informe baten ondorioen arabera: barne-produktu gordinaren (BPG) batz besteko %7 1986-2001 urteen

artean, eta ordutik gora egin du, %10 gaingaitzeraino. Zein ondorio ditu horrek Kataluniako ekonomiarentzat? Eta zertan eragiten die herritarrei?

Kataluniako Estatutu berria premiazko behar batetik jaio zen: BPG, per capita errenta erabilgarria eta langile bakoitzeko produktibitatea geldituta daude Katalunian azken urtetan. 2003an eta 2004an, Espainiako industrian suntsitu ziren enpleguen %90 Kataluniakoak ziren eta dagoeneko ez du parte hartzen balio erantsi altuak sorrarazten dituzten sektore ekonomiko berrietan, aeronautika bezala (Estatuko guztizkoaren %5 eta %6, Madrilgoa %60 eta %80 den bitartean). Badira ia 1,5 milioi katalan Espainiako errenta erabilgarriaren batz bestekoaren azpitik bizi direnak, Estatuko batz bestekoa baino prezio handiagoei aurre egin behar dietenean (%25 kontsumo-prezioen indizean eta %110 etxebizitzan). Azpiegituren defizit sekularrak, zeina ez den izarren konjuntzio kaltegarri baten ondorioa baizik eta alde aurretik pentsatutako asfixia baten emaitza (Trias Fargas, 1985), Kataluniako ekonomiaren hazkundera mugatzen du eta etorkizuneko aukerak itozten ditu: gaur egun badira Bartzelonako periferiako auzoak non %50ak porrot egin duen eskolan 16 urterekin eta badira eskualde osoak ia inolako industriarik gabe. Horrela jarraituz gero, 2015ean Katalunia lurralde pobrea izango da Espainian, lehen aipatutako Estatuko batz bestekoaren azpitik dauden per capitaren aldagai horiekin.

Ekonomia geldirik egotearen arrazoietakoa bat da Kataluniak gobernu zentralarekin duen zerga-defizita: gobernuak urtero Katalunian biltzen dituen zergen eta Gobernu horretatik jasotzen den gastu publikoaren arteko alde etengabeak eta geroz eta handiagoak Kataluniako ekonomia deskapitalizatzen du (azken datuak: Generalitat, 2001, 11.307 milioi euro, Kataluniako BPGaren %9,2; Funcas, 2003, 14.230 milioi euro, BPGaren %9,7: 452 euro segundoko). Gaur egungo gobernu sozialistak balantza fiskalak argitaratu nahi ez izateak, PPK egin zuen moduan, espoliazio fiskalaren sentsazioa baino ez du elikatzen: jokaera hori ez da iristen Espainiako gastu publiko likidatuaren, aurrekontuetan sartu gabekoaren, lurraldeko memoriatarara.

Jordi Ponselkin batera argitaratu duzun espoliazio fiskalari buruzko liburuak salmenta handiak izan ditu ekonomiari buruzko saiakera bat izateko. Zenbat ale saldu dira gutxi gorabehera orain arte? Zer esan nahi du horrek? Espoliazio fiskalaren ideia gizartean errotuta dagoela ala herritarrak orain hasi direla kontzientziazten? Eta politikoak?

7.000 ale saldu dira eta hori marka da saiakera tekniko akademiko baterako: hamaika hilabetetan lau edizio egin ziren. 2006ko urtarrilean "Estatut de Catalunya. Veritats contra mentides" (314 editoriala, Valentzia) argitaratu nuen, 2005eko irailaren 30ean Kataluniako Parlamentutik irten zen Estatutuaren defentsa bat zen. Lan horretatik 16.000 aleko lehen edizioa egin da eta astetan liburu salduen zerrendan egon da. Zera izan behar da kontutan: Frantzian, guru mediatiko batek idatzi ez duen saiakera baten ale-kopuruen bataz bestekoa 6.000 ale izaten dela.

Dena den, badirudi arazoak daudela balantza fiskalak argitaratzeko. Zergatik ezin da horri buruz hitz egin?

Josep Maria Uretak, Kataluniako kazetari onenetako batek, zera aitortzen zuen Catalunya Ràdioko El Matí irratsaioan, abenduaren 20an: balantza fiskalak "argitaraezinak zirela, sekulako istiluak eragingo litzuzkeelako". Bitxia da, baita 2005eko abenduko azken astean

ere, Madrilen Estatutuaren negoziazioaren azken txanpan, FUNCAS (aurrezki-kutxak) fundazio pribatuak ere –1996tik balantza fiskalen estimazioak argitaratzen zituen bakarrak (urte horretan gobernu espainiarrak kalkulatzeko baliagarriak ziren datu ofizial guztien iturri informatiboak itxi zituen)– Kataluniako defizit fiskala argitaratzeari utzi zion, 2003an 14.230 milioi eurotan kalkulatu zuena. Kataluniak Estatutik jasotzen dituen inbertsioen eta beste lurralde batzuek jasotzen dituzten arteko aldea Kataluniaren independentziarako argudiorik onena izango litzateke.

Ba al dago jakiterik zertan gastatzen diren Kataluniak ematen dituen diru-kopuruak?

Bat egiten dut erabat Angel de la Fuente ekonomista asturiarrarekin –bide batez, ez oso aldekoa foruen erregimena bezalako finantza-autonomia benetakoa eskuratu nahi dituzten eskaera katalanekin– oso zentzuzko kontu bat eskatu zuenean 2003an: likidatutako, eta aurrekontuetan sartu gabeko, gastuaren urteko Estatuko memoria, lurraldeka antolatuta. Memoriarik egongo ez balitz, eta gaur egun oraindik ez dugu horrelakorik, "Estatuak eztabaida galduko du horrelakorik ez agertzeagatik". Gaur, La Vanguardiako inkestek erakusten dute katalanen %70ak uste duela Kataluniako defizit fiskalak bertako hazkunde ekonomikoa geldiarazten duela (2005-07-25) eta %82ak nahi duela Generalitateak berak jasotzea Kataluniako zerga guztiak (2005-10-09). Ehuneko hauek gainditu egiten dute are Katalunia nazioa izan behar duela sinisten dutenen ehuneko (%56). Bidegabekeriaren sentimendua zeharkakoa da gaur egun Kataluniako gizartean.

Kataluniako parlamentuak irailaren 30ean onartu zuen Estatutuak EAren eta Nafarroaren antzeko sistema bat proposatzen zuen: bere baitan aurreikusten zituen zerga-agentzia bat eta alde bikotasuna Estatuko harremanetan. Proposamen horiek asetzen al zituzten katalanen beharrak? Uste izan al zenuen aldaketa horiek posible izango zirela?

Baietz uste dut eta zuzena izan zen eredu foraletik abiatzea. Dena den, oraindik ere, Kataluniak zerga-

bilketaren diru-sarrera nagusia izaten jarraitzen du Estatuko ogasunarentzat. Beraz, jakina zen Estatuko aparatuen oposizio gogorra eta inteligentea. CiU eta ERC alderdien arteko ika-mikek irekita utzi zituzten zulotxoak aprobetxatuz, zatikatzen jakin izan dute, irabazteko, eta Zapaterok Artur Masekin paktu egitean, bi alderdi sukurtsalista katalanen arteko urradura sakondu baino ez zen egin. Jakina zen Madrilen Estatutuaren murrizketak egongo zirela, aurreikusi ezin zitekeena zen zergeri zegozkien aurrerapen guztiak murriztuko zituztenik, presoaren dilemaren taktika errazaren bidez.

Estatuta Madrildik igaro ondoren, zertan geratuko da zergen gaia? Badirudi lortu dela igotzea hainbat ehuneko zergen eskumenean, baina horrek aldatarik eragingo al du gaur egungo ereduan?

PSOE eta CiUren arteko akordioak uko egiten dio finantziario eredua aldatzeari eta ez du eragingo Kataluniako zerga-defizitaren funtsezko murriztapenik. Generalitateak ez ditu bilduko Kataluniak jasaten dituen zerga guztiak, Kataluniako Parlamentutik irten zen Estatutak aurreikusten zuen bezala. Bukaerako testuak Estatuko eta Kataluniako zerga-agentzien arteko partzuzergo bati buruz hitz egiten du, partekatzen dituzten zergak kudeatzeko, baina hori aukera bat baino ez da eta hori gauzatzeko inolako bermerik ez dago, testua gobernu zentralaren borondataren utzi delako. Estatuak jarraitu egingo du zerga handiak biltzen eta jarraitu egingo du zehazten zeintzuk diren Generalitatearen gastuen eta finantziarioaren beharrak. LOFCaren gaur egungo eredua erabat txertatuta geratu da Estatut berriaren testuan. Partekatzen diren gaur egungo zergen zesia baino zesia handiago batek estaliko ditu behar horiek: PFEZaren %50, BEZaren %50 eta zerga berezien %58. Generalitateko 2006ko aurrekontuen datuen arabera, aurrekoak zera ekarriko luke: diru-sarrerak 4.320 milioi eurotan gehituko liratekeela. Baina hitzartutako testuak aurreikusten du diru-sarrerak "egokitu ahal izatea, gehiago edo gutxiago, berdinketa eta elkartasun mekanismoetan parte hartzeko, egokiera horiek Estatuak bakarrik zehaztu ahal izango dituelarik" (206. artikulua). Geroztik, Kataluniak nahikotasun fondoaren jasotzaile soila izateari utziko diola iragarri du Solbes minis-

"Kataluniak Estatutik jasotzen dituen inbertsioen eta beste lurralde batzuek jasotzen dituztenen arteko aldea Kataluniaren independentziarako argudiorik onena izango litzateke"


troak, eta fondo horren zergadun hutsa izatera eta guzti irits daitekeela. Horrek guztiak 1.000 milioi euro eskasetara murrizten ditu hobekuntzak finantziarioan, betiere gobernu zentralak erabakitzen duenaren arabera. Eta Madrilen gehiengo absolutua balego, Kataluniaren kontrakoa, zero eurotara murriztu ahal izango litzuzke aurrerapen finantzarioak.

Estatutaren prozesuak finantziario eredu espainola babestu duela baieztatu izan duzu eta Kataluniako zergen aldarrikapena lozorroan geratuko dela norbaitek berriro gaiari heltzen dion arte. Horrez gain, urte batzuk barru Katalunia eskualde pobrea bihurtu daitekeela diozu. Ba al dago hori gertatzeko aukerarik? Eta nola saihestu daiteke aukera hori?

Václav Havelek kartzelan idazten zituen antzezlanak eta horietako batean harrিতa adierazten du nola erori zen komunismoa "igande arratsalde batean, karten gaztelu baten antzera". Ondoren, harrিতa azaltzen du nolatan iraun zituen 40 urte horrelako erregimen batek. Kataluniako zergen auzia lotara sartu da (Zapaterok berak iragarri du Estatutu hau betirako dela eta biktimismoa amaitu dela) eta gero eta banatuagoa dagoen nazionalismo katalanaren etorkizuna gero eta beltzagoa iruditzen zait, errezelo pertsonalek oztopatu duten elkarlan eraginkor baterako gaitasunik ez duela. Baina, batzuetan, Havelek zioen moduan, "putzuzaren barreneraino erori behar izaten da izarren dirdira ikusteko".

**Ekonomialaria eta Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea*

“Katalunian konturatu dira eskubide historikoek erregimen berezia esan nahi dutela”



Jose Manuel
Castells*

ARGAZKI PRESS/IMANOL OTEGI

Eskubide historikoek funtsezko diferentziak ezarri zituzten 1979ko estatutuetan. Euskal Herrian onartu egin ziren; Katalunian ez.

Eskubide historikoak 78ko Espainiako Konstituzioan agertzen dira, 1. Xedapen Gehigarri ezagunean. Bi komunitatek helduko diote aukera horri: EAEn 1979ko Estatutuan eta Nafarroak 1982ko Amejoramentuan. EAEn, kontzertu ekonomikoa, polizia autonomoa, antolaketa forala eta hezkuntza jaso ziren erregimen foralaren eguneratzean eta, horrela, erregimen pribatibo berezia ezarri zen. Katalanak ez ziren bide horretatik joan. Batzuentzat eskubide historikoak zaharkinak besterik ez ziren. Baina askok uste zuen kontzertu ekonomikoa ez zela hain ona, bereziki, Euskal Herrian bezala, krisi ekonomiko garaiak iristen baziren. Halako egoeratan komenigarriagoa litzateke Estatuaren laguntza izatea, autofinantzazioa baino. Horrez gain, Auzitegi Konstituzionalak, epaien bidez, eskubide historikoen eguneratzea EAE eta Nafarroara mugatuko du soilik, ate hori beste guztientzat itxiz.

Gaur egun, ordea, Katalunian eskubide historikoen eskaerak indarra hartu du.

Katalunian konturatu dira eskubide historikoek erregimen berezia esan nahi dutela. Polizia autonomoan askoz beranduago ibili ziren, kontzertu ekonomikoa autogobernua funtsezkoa dela ikusi dute eta lurralde administrazio antolaketa berezarako aukera ere

hortik datorrela konturatu dira. Katalanak saiatu ziren banaketa probintziala bertan behera utzi eta banaketa komarkala ezartzen, baina berriro ere Epaitegi Konstituzionalak ixten die bidea. 79tik aurrera gainera Euskal Herrian eskubide historiko gehiago eguneratzen joan dira: funtzionarioak, garraioa, errepideak...

Baina gero, eskumenen garapenari dagokionez, azpiegitura kulturaletan, esaterako, katalanak aurretik joan ziren. 1980an Kataluniak Artxibo Historiko Nazionala zuen; Jaurilaritzak legegintzaldi honetan prestatu nahi du proiektua.

Hemen, 80etan, lehentasuna zulotik ateratzea zen. Errekonbersio garaiak dira, industria siderometalurgikoa hondoratzen dira. Eta Jaurilaritzak horri eskaintzen dizkio ahalegin eta diru kopuru handienak. Euskararen inguruan ere ahalegina egin zen, baina horrez gain, kultura garai hobetarako baztertzen da.

Euskara aipatu duzu. Hemengo eta Kataluniako estatutuetan hizkuntzaren gaia behar bezala jorratu al zen?

Konstituzioak permititzen zuena ezarri zen, hots, koofizialtasun linguistikoa. Hemen 1983an ezarriko da Euskararen Normalizazio Legea, orduko hezkuntza kontseilari Etxenikeren eskutik eta; HB ezik, beste alderdi guztien onarpenaz. Pauso baikorra izan zen. Katalunian ere urte berean onartu zuten hizkuntzaren

legea. Guztiak dira lege oso kontsentsuatuak eta oro har dinamika positibo bati bidea ireki dietenak.

Katalunia estatutu berriaren prozesuan sartuta dago. Zer iritzi duzu testuaz eta prozesuaz?

Arau juridikoen eguneratzea funtsezkoa da. Gauza asko pasa da 1979tik hona, Europan sartzea, teknologia berrien eztanda... Garai berrietara egokitzea guztiz beharrezkoa da. Kataluniako Parlamentuak irailaren 30ean onartutako testu ikaragarri luze hura irakurri nuen. Nahi baduzu, garatuegia zegoen, dena zehazten zuen. Baina gaur egun geratu dena beherapen handia da. Irailak 30ekoaren espiritua mantentzen duela? Agian bai. Baina, lehengo batean Ferran Requejo Zientzia Politikoetako katedradun katalana makuluekin etorri zitzaigun bilera batera eta hark ederki esan zuen: "Kataluniako Estatutu proiektua Madrildik pasata bezala nago". Beherapena gehiegizkoa izan da. Baina 1979ko prozesu estatutarioarekin alderatuta alde nabarmena dago. Orduan, Gernikako Estatutuak ezarri zuen eskumenen sabaia, hura izan baitzen eztabaidatzen lehena. Noraino irits zitekeen markatzen zuen barometroa izan zen. Oraingoan, Kataluniako Estatutua aurreratu da. Hala ere, ikusteko dago hori ote den eskumen sabai berria.

Orduan, su-etenak zabaltzen duen bide horretan, Euskal Herria autogobernuan urrutirago irits daiteke?

Katalanei testua aldatu diete, baina gutxienez negoziatu egin dute. Ez ahaztu, Ibarretxe Planak Diputatuen Kongresuan jasotako zaplastekoa. Eta Euskal Herriak ere bere arau juridikoak eguneratzeko beharra du, berdin-berdin; edo agian gehiago, antolaketa administratiboaren konplexutasuna kontuan hartzen badugu. ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziaketetan presoan gaia eta horrelakoak agertuko dira. Baina lehenago edo beranduago autogobernuaren gaiak ere azaleratu beharko du alderdien mahaiaren eskutik. Lehendakariak uda ostea aipatu du horretarako. Ikusiko dugu.

Duela hiruzpalau urte, beste elkarrizketa batean esaten zenuen Europa federaralago batean Euskal Herriak eta Kata-

luniak aukera handiak zituztela autogobernuaren bidean?

Bada, egun ezin da oso optimista izan. Europako Konstituzioa ez zen aurrera atera, baina finean hor dago, eta Estatuaren Konstituzioa da. Testuan Erregioen Batzordeari botere gehixeago onartzen zaion arren, Europako Batasuna maila oso estatalean zuzentzen ari dira. Baina mundua federalismorantz doa, federalismoa inposatzen ari da; estatu indartsuenak federalistak dira: AEBak, Kanada, Alemania... Belgikak komunitateen inguruko arazo handiak zituen eta 90eko hamarkadan, federalismoaren bitartez nolabait konpontzea lortu zuen.

Hortaz, une erabakigarri hauetan, nola ikusten duzu Euskal Herria nahiz Kataluniaren etorkizuna?

Kataluniak testu berria hor du jada. Oro har, autonomien eskumen esparrua zabaldu egin da eta, ondorioz, politika autonomikoa ere areagotu egingo da. Une honetan autonomiek kudeatzen dituzten politika publikoak %80an daudela badiote, portzentaje horrek gora egingo du. Oraindik Madrildian geratuko da, baina botere administratibo gutxiagorekin eta agian botere politikoa ere murriztuta. PSOren Gobernuak, Konstituzioaren erreformaren barruan, autonomia erkidegoak ordezkatuko dituen senatua aurreikusi du. Baina nik zaila ikusten dut. Auzitegi Gorena, Auzitegi Konstituzionala edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia funtsezko organoak dira, haiek agintzen dute, haiek dira benetan goi mailako politikak bideratzen dituztenak. Baina hor ere zaila ikusten dut euskaldunek nahiz katalanek ordezkaritza zabala izatea.

** Abokatua eta EHUKo irakaslea*

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Koordinatzailea: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.043. zenbakiarekin banatua, 2006ko ekainaren 4an)

Zenbaki bakoitzarekin
pentsarazten duzuelako...



ZORIONAK

Larrun 100. zenbakian !



Gipuzkoako Foru Aldundia